

Herri programa proposamena
2019

Herri jasangarria

ehbildu

Índice

1. Ura	05
2. Basogintza	09
3. Bioaniztasuna.....	13
4. Hondakinak.....	15
5. Lurralde antolaketa	19
6. Energia	23
7. Azpiegiturak eta mugikortasuna	27

Ura

Diagnostikoa, kokapena

Azkeneko hamarkadetan gero eta nabarmenago ari gara ikusten mundu osoan zehar hedatzen ari den egoera bikoitza, urari dagokionez. Alde batetik, uraren eskaria gero eta handiagoa da leku askotan, gehiegizko erabilera desegokiaren eraginez eta klima aldaketaren ondorioz. Era berean, gero eta ur-masa handiagoak kutsatuta daudenez, erabili daitekeen ura gero eta gutxiago da. Beste alde batetik, enpresa handien eskuetan ipini da leku askotan uraren kudeaketa, eskubide unibertsala zan beharko litzatekeen negozio bilakatuz. Gurean ere zoritxarrez, azaldutako errealitate bietarazko urratsak egin dira azken urteotan.

Ura baliabide produktibo edo merkantzia hutsa baino askoz gehiago da eta, ondorioz, daukan garrantzia eman behar zaio. Uraren ziklo osoa aintzat hartu behar da bere kudeaketa diseinatzerakoan, berarengan eragina duten jarduera guztien gaineko hausnarketa sakona eginez (basoak, industria, turismoa, eraikuntza...).

Euria jasotzen duten baso eta mendietatik hasita, erreka, ibai, hezegune eta bestelakoetatik igarota, itsasora heldu bitarteko ingurune eta ekosistema guztiak aztertu eta babestu behar dira uraren ziklo osoan kalitate eta bolumen egokiak bermatu ahal izateko.

Hornigaia edo salgaia izan beharrean, ura ekosistema oso bat da, eman diezaiogun merezi duen arreta.

Helburu orokorra

Azken urteetan nagusitu den etengabeko azpiegiturak eraikitzeke politikekin amaitu beharra dago, inbertsio politika basati honek administrazioak itoztera eramán baikaitu. Beharrezkoa da inbertsio politika gizarte-errentagarritasunaren printzipioan oinarritzea ingurumena eta iraunkortasun parametroak ahaztu barik.

Egungo ereduaren mugak begi bistakoak dira eta ekonomikoki, sozialki eta ingurumenarekiko jasangarria izango den eredu bat aldarrikatzen dugu: lurralde antolaketa arduratsu baten ondoriozko garraio plan integral iraunkor bat diseinatu behar dugu, garraio publikoari lehentasun osoa emanez, egun ditugun azpiegiturak kontuan izanez eta auto pribatuaren erabilera gutxitzeko neurri eraginkorrak hartuz.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1. Irisgarritasuna eta mugikortasun iraunkorra dira gure mugikortasun politikaren ardatzak

- Norabide horretan, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta udalak lankidetzan jarriko ditugu, herritar orok irisgarritasuna bermatua izan dezan eta administrazio publikoek eskaintzen dituzten zerbitzu guztietara sarbidea izan dezan.

2. AHTren esleipenak geldituko ditugu, moratoria batekin batera, azpiegitura bere osotasunean eraikitzeak sortaraziko lukeen koste ekonomiko, sozial eta ingurumenekoa aztertu eta, martxan jarritz gero sortaraziko lukeen koste/onuren txosten independente bat eskatuz. Horren ondorioz herritar galdeketa bat antolatu azpiegiturarekin zer egin erabakitzeke

3. Bizikleta bidezko mugikortasuna planifikatu eta garatuko dugu, aisialditik haratago, egunerokotasunerako garraio sistema modura ulertuz

- Horretarako beharrezkoa da: azpiegitura egoki eta bidegorriak garatzearekin batera, errepideak autoekin konpartitzeko ereduak bultzatzea, garraio publikoetan bizikleta eramateko baliabideak ipintzea, azpiegitura nagusietan bizikleta aparkalekuak egitea, eraikin publiko eta komertzial guztietan bizikletentzako aparkaleku egokiak egiteko beharra arautzea eta bizikleta alokairuko zerbitzu publikoak jartzea.

4. Garraio publikoa bultzatuko dugu

- Garraio publikoan orokorrean eta autobusetan bereziki, kudeaketa publikoa bultzatuko dugu, zerbitzuaren kalitatea zein maiztasuna hobetuz eta ibilgailu elektrikoak lehenetsiz.

5. Trenbide azpiegitura guztien azterketa sakona egitea ezinbestekoa da, egungo lineak indartzeko eta herri honek beharrezko dituen azpiegiturak diseinatu eta gauzatzeko

- Egungo trenbide sarean hobekuntza nabarmenak burutuko ditugu, trenbide-pasaguneak ezabatuz edo behintzat segurtasuna hobetuz eta tren zerbitzuaren maiztasunak handitzeko hobekuntzak eginez.
- Donostialdeko metroaren proiektuari dagokionez, Donostialdeko eta Gipuzkoako tren zerbitzua hobetzeko egin genuen proposamen alternatiboa defendatuko dugu, eragile eta herritarrekin batera benetako parte hartze prozesu garden bat abian jarritz.
- Arabatran, mugikortasuna hobetzeko Arabari eskaini diogun proiektua, Gasteiz eta orokorrean Arabako eremu zabal bati irtenbide emango liokeen tren sozialaren proiektua eztabaidagai jarriko dugu.
- Bizkairako aurreikusitako trenbide proiektuak (metroaren linea berriak, aireportukoa, tranbiak, eta abar...) berraztertuko ditugu eta gizarte-errentagarritasunaren printzipioan oinarrituko ditugu proiektu berriak.
- Merkantzia-trenen egungo sarea bultzatuko dugu, horretarako sarea gaurkotuko dugu hobekuntza nabariekin.

6. Errepideen eraikuntza basatiak finantzaketa arazo larri batera eraman gaitu

- Irtenbide integral bat behar dugu finantzaketa iturriak finkatzeko, eta horretarako EAEko erakunde guztien arteko elkarlanean proposamen bateratua diseinatzea planteatzen dugu, lurralde arteko desplazamenduetan eta lurralde barruan oreka eta berdintasun printzipioak aplikatuz egun dagoen diskriminazioarekin bukatzeko.

7. Gaitasun handiko errepideek gure lurraldean eragin dituen ingurumenean zein osasunean kalteak leuntzeko hainbat neurri eramango ditugu aurrera, hala nola, fauna bideak eraikitzeak eta soinu plalak zein horma begetalak jartzea

8. Aireportuen gaineko eztabaida mahai gainean jarri eta Herri ikuspegi batetik planteamendu zehatzak egingo ditugu, aireportu sarearen antolaketa integrala planifikatuz eta aireportuen arteko osagarritasuna bilatuz.

- Lehenasunezkoa da Forondako aireportuarentzat 24h-tako zerbitzua eta Muga Ikuskaritza Postua (Puesto de Inspección Fronterizo (PIF)) berreskuratzea.
- Antolaketa integral bat planifikatu bitartean, Loiuko aireportuaren zabalkundea egiteak ez du zentzurik.
- Hondarribiko aireportuaren erabilera, gaur egungo eremuak ematen dituen aukerak baliatuz, hobetuko dugu, pista luzatu beharrik gabe.

9. Portuen eta itsas garraioaren kudeaketa integralerako urratsak ematea lehenasunezkoa da, eta horretarako portu guztiak kudeatzeko legea aurkeztuko dugu, kudeaketa publikoan oinarrituz eta udalen parte hartzea bermatuz.

Basogintza

Diagnostikoa, kokapena

Baso ekosistema osasuntsu eta sendoak ezinbestekoak dira guztion bizi-kalitate egokia bermatzeko. Uraren eta luraren kalitatea hobetzen eta bermatzen laguntzen dute basoek, oxigenoa sortu eta CO2 gas kutsatzailea zabaltzen dute, negutegi efektua murriztuz eta gainera, bertan bizi diren landare eta animalia espezie guztien babesleku dira. Baso zenbat eta anitzago eta osasuntsuagoak izan, dakartzaten onurak are handiagoak izango dira.

Horrela izanik, kanpoko zuhaitz espezieen monokultibo intentsiboa oinarri duen eredutik beste eredu berri baterako bideari ekin behar zaio, bertako espezie ezberdinen berreskurapenerako urrats sendoak eginaz eta basoari begirako epe laburreko ikuspegi ekonomizistatik aldentuta.

Basoa egur blltegi bat baino skoz gehiago da eta egurra baino askoz gehiago ematen du. Beraz, erabilera intentsibo bakarretik aldentu eta, ekonomikoki ere, bestelako ikuspegiak bultzatu behar dira basoarekin lotuta: paisaia, turismoa, mikologia, abeltzaintza...gauza ugari eskaintzen dizkigu basoak egurraz gainera, bioaniztasunaren sendotzearekin uztartuta garatu daitezkeenak.

Guzti hori lotu daiteke gainera, kalitatezko enplegua sortzearekin batera, gaur egun sektoreak bizi duen krisi sakonari aurre egiten lagunduko duena. Landa eremua era honetako lanpostuen premian dago, honez gero daudenak mantentzetik hasi, espezializazio eta profesionalizazioaren bidean eginiko aurrerapausoen bitartez sektorea sendotzeraino.

Helburu orokorra

Epe luzerako baso politikak eraikitzea dugu helburu, epe luzeko espezieekin lan egiteko besteren artean. Bertako espezie, baso eta ekosistemetan oinarritutako basogintzara heltzeko, hiru ardatz izan behar ditugu kontuan: ekonomia arloko politika sostengarriak martxan jartzea, basogintza alorrari lotutako kalitatezko enplegua sortzea, eta bioaniztasunaren galera geldituko duen politikak sustatzea.

Bertako espezieen karakterizazio teknologikoa bultzatu behar dugu, kudeaketa eta ikerketa arloan esparru berriak zabaldiaz; dagoenari uko egin gabe, basi-produktuen dibertsifikazioa eta berrikuntza sustatzea dugu helburu.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- Basoen kudeaketa jasangarria, askotarikoa eta gardena garatzea espezie eta ekosistema autoktonoak abiapuntutzat hartuta, biodibertsitatean oinarrituta

- Herritarrekin zuzeneko informazioa izateko ildoak zabaltzea eta herritarrek parte hartzeko aukera sustatzea.
- Espezie eta ekosistema autoktonoak indartzeko laguntza ekonomikoko lineak bultzatzea/lehenestea.
- Baso-ekonomiako irizpide eta irizpide ekologiko eta sozialetan oinarritutako baso-landaketak sustatzeko politikak definitzea.
- Kudeaketa-eredu alternatibo, askotariko eta jasangarria sustatzeko programa eta planak martxan jartzea, hots, beste erabilera batzuk bultzatuko dituen eredia, hala nola turismoa, abeltzaintza estentsiboa, mikologia arautu eta jasangarria, eta abar.
- Baso-lurren banku publikoak sortzea irizpide publiko jasangarrietan oinarritutako kudeaketa bat bermatzeko eta interes historiko eta paisajistikoa duten gunek babesteko, baita galzorian edo horretarako bidean dauden baso-espezie autoktonoak berreskuratzeko eta mantentzeko banku genetiko eta haztegiak ere.
- Ikerketagune berriak zabaltzea baso-espezie autoktonoentzat: zur autoktonoko espezieen karakterizazio teknologikoa, aprobetxamendu mikologikoa, espezie autoktonoen hobekuntza genetikoa, eta abar.
- Ikerketa eta esperientzia pilotuak martxan jartzea biomasaren erabilera eta kudeaketari buruz, betiere baso autoktonoaren kudeaketa integrala helburutzat izanda, eta basoaren guztizko ebaketa saihestuta.

- Zur autoktono jasangarriaren erosketa publikoa lehenestea, eta jatorria eta baso-kudeaketa jasangarria bermatuko duten Berme Marka propioak sustatzea.
- Herritarrei teknologia berrietarako eta informazio eskuragarri eta egokirako sarbidea erraztea baso-kudeaketari buruz, eta lankidetzarako ildoak ezartzea produzitzaileen, enpresen eta askotariko eragileen artean.

2.- Baso-sektorearen enplegarritasuna hobetzea

- Basoen kudeaketa dibertsifikatuari lotutako enplegua sortzeko planak bultzatzea, prekarietate eta kalteberatasun-egoeran dauden pertsona eta kolektiboak lehenetsiz: emakumeak, gazteak, migratzaileak, iraupen luzeko langabeak eta abar.
- Programak ezartzea baso-sektorean jende berria sartzea errazteko zuzeneko laguntza-lineen, zer-ga-kenkarien eta abarren bidez askotariko esparrutan, hala nola inguruneko materialekin egindako bioeraikuntza, turismoa, eta abar.
- Klausula sozialak bermatzea esleipen publikoetan.
- Genero-ikuspegia daukaten prestakuntza-prozesu etengabeak sustatzea baso-kudeaketa jasangarriari, dibertsifikazioari, biodibertsitateari, eta abarri buruz.

Bioaniztasuna

Diagnostikoa, kokapena

Bioaniztasuna -inguratzen gaituzten ekosistemak, espezieak eta geneak- gure bizitza-asegurua da: jantzia, ur edangarria eta aire garbia, babesa eta sendagaiak ematen dizkigu, hondamendi naturalak, izurriteak eta gaixotasunak arintzen ditu eta klima erregulatzen lagundu.

Bioaniztasuna gure natur kapitala da eta ekonomiaren oinarri diren zerbitzu ekosistemikoak ematen dizkigu. Horrela, bioaniztasunaren galera, klima aldaketarekin batera, mundu-mailako ingurumen-mehatxu nagusia da eta pertsonen etorkizuna kolokan jartzen du.

Pertsonen eragin kaltegarriak, naturalki ematen den espezieen desagerketa 1000 aldiz areagotu du; galera erritmo honek ez du parekorik bizitzaren historian.

Hego Euskal Herrian 70etik gora dira interes europarreko habitatak (padurak, larreak, zohikaztegiak, basoak...); haueetatik %77 kontserbazio egoera txarrean daude. Kostaldeko habitatak eta basoak dira egoera txarrean dutenak.

Bakarkotasuna da arlo honen ezaugarri nagusia, askotan beste arlo batzuetan hartzen diren (edo hartzen ez diren) neurri eta erabakiek eragin zuzena dutelako. Baina horretaz gain neurri zehatzak behar dira arlo honetan ere. Eredu kapitalistaren arimak, alegia, mugagabeko hazkundeak, eragin zuzena du ere bioaniztasunaren galeran eta natur baliabideen xahuketan. Era horretan presioak etengabe jarraitzen dute eta handituz doaz, batez ere: lurzoruen erabilera aldaketak; bioaniztasunaren eta bere osagaien gehiegizko ustiaketa; espezie exotiko inbaditzaileen hedatzea; gutxitzen ez diren kutsadura eta klima aldaketa. Ezinbestekoa da beraz hainbat jardueren kontrola eta funtsezkoa administrazio publikoak kontrol horretan zorrotzasunez aritzea.

Azkenik aipatu behar dugu baliabideen kudeaketan askotan interes orokorraren gainetik, interes pribatuaren interesak gainditzen direla. Beraz, arlo honetan ere, kontrol publikoa, alegia interes orokorra helburu nagusi bezala, beharrezkotzat jotzen dugu.

Helburu orokorra

Bioaniztasunaren galera 2020rako etetea, Europar Batasunak onartutako Biodibertsitateari Buruzko Estrategian, bere osotasunean aplikatuz. Ura, aire eta lurzorua kutsadura ezabatu, baliabide naturalak, ondare publiko gisa defendatzera enfokatuz, pribatizazio arriskuetatik libratuz eta baita usiaketa basati eta sostengaezinetik ere, eta era berean, jarraipen berezia eginez jarduera kutsatzaileei.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- Biodibertsitatea mantentzeko eta leheneratzeko aukera bermatzea politika integral eta zeharkako bidez

- Zeharkako ikuspegia duten azterlan zorrotzak egitea biodibertsitateak lurralde bakoitzean duen egoerari buruz.
- Neurri eta erreminta bateragarri eta efizienteen multzo bat proposatzea, Natura 2000 Sarea, Europako Zuzentarauak eta antzeko kontzeptu eta dinamikak integratuta, eta betiere plangintza-prozesu integralen eta zeharkakoen esparruan. Honako hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:
 - Basoa kudeatzeko planetan basoko flora eta animalien biodibertsitatea mantentzeko neurriak biltzea.
 - Baso-tratamenduak planifikatzea baso-suteen arriskua murrizteko.
 - Espezie mehatxatu eta Batasunaren intereseko katalogoak eguneratzea, eta haien kontserbazioa sustatzea.
 - Hondakinen kontrol zorrotza eta kudeaketa egokia egitea.
 - Espezie inbaditzaileen kontrol zorrotza eta kudeaketa egokia egitea.
 - Nekazaritza- eta abeltzaintza-praktika egokiak sustatzea, hala nola ekologikoak.
 - Lurraren kudeaketa jasangarria egitea: udal-lurrak beren interes ekologikoaren arabera katalogatzea.
 - Aukerak aztertzea babes bereziko eremu berria gehitzeko, batez ere itsas ingurunean eta kostan, eta lege horiek EAeko korridore ekologikoen sarera gehitzea.
 - Herriguneetan biodibertsitaterako kaltegarriak diren faktoreak identifikatu, neurtu eta aztertzea, eta neurri espezifikoak identifikatzea.
- Ingurumen-arloetako politika propioak (baso-kudeaketa, biodibertsitatea, ehiza eta arrantza, basoen kudeaketa, nekazaritza eta abeltzaintza, ingurumen-inpaktua...) modu eraginkorrean koordinatzeko gune eta mekanismoak bultzatzea, beste arlo batzuekin batera (lurraldearen antolamendua, energia, nekazaritza, abeltzaintza, ekonomia...).
- Natura 2000 Sarearen garapena bermatzea lurralde bakoitzean, babes-neurriak gehituz, eta baliabide eta aurrekontu gehiago bideratuz.

Hondakinak

Diagnostikoa, kokapena

Hiri-hondakin solidoak gizarteak sortzen dituen hondakin solido guztien frakzio bat baino ez dira, halere, horrelako hondakinen kudeaketa eta tratamendu egokia ekonomia zirkularrean aurrera egiteko bultzada sendoa izango litzateke.

Herritarrek zuzenean sortzen dituztenez, materialen zikloa ixten duen hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua (hots, frakzio desberdinak gaika biltzea birziklatzen laguntzeko) hezteko eta kontzientziatzeko tresna bikaina da, eta efektu biderkatzailea ere badu beste sektore batzuetan.

Ez dugu ahaztu behar etxeko material-kontsumoa azken eskariaren zati oso garrantzitsu bat dela, eta horrek eragiten duela, neurri handi batean, ekonomia osoko materiaren zein energiaren kontsumoa: garraioa, energia, erauzteko sektoreak.

Gaur egin hainbatek hedatu nahi duten hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-eredua errausketan oinarrituta dago. Erraustearen alde egiteak galga dakarkio birziklatzeari: Bizkaiak hiri-hondakin solidoen %40 birziklatzen ditu, gainerako lurraldeetan baino gutxiago.

Gure jendartea erabili eta botatzeko arduragabeko ohituratan hazi da azkeneko hamarkadatan, baina eredu horretatik aldendu eta berria eratu behar dugu, non herritar arduratsuek jatorritik lagunduko duen zero zabor helburua lortzen. Horretarako abiapuntua, ezinbestean, kontsumo ohitura arduratsuak lantzea eta zabaltzea litzateke. Gutxiago kontsumitu, baliabide gutxiagorekin hobeto bizi eta hondakin gutxien sortzen dituzten produkzio sistemak bultzatu.

Abiapuntu horretatik errazago izango da sortzen ditugun hondakinak berrerabili eta, ezinezkoa deanean, sailkatu eta birziklatzea. Ikerketa eta garapen lan handia dago egiteko, materialen arloan eta produkzio eremu ezberdinetan, gero eta hondakin gutxiago sortu eta gero eta gehiago birziklatzeko.

Ezinbestean sortzen diren hondakinak berriz, sorlekutik ahalik eta hurbilen tratatu behar dira, alferrikako garraioaren ondorioak ekiditeko. Udalek dute hor zeregin nagusia, beraiena baita herritarrek sortzen zituzten hondakinak tratatzeko ardura. Horrela izanik, ahal den guztietan herrian bertan egin beharko da hondakinen birziklapen eta tratamendua, edo hasierako faseak, behintzat.

Hondakinen kudeaketarako azpiegiturak eskala horretatik abiatuta diseinatu eta eraiki beharko dira, tokian tokiko beharrian eta aukerei egokituta. Izan ere, eskala erraldoian eginiko proiektuek eta kudeaketa ereduak gehiago erantzuten diote zerbitzu eta eraikuntza arloan betidanik jardun duten enpresa handien interesari herritarren benetako beharri baino.

Helburu orokorra

Birziklapen tasak gaur egungoetatik gutxienez %50eko igoeraz kudeatu, bildu, birziklatu eta berrera-biltzeko beharrezkoak izango diren azpiegitura sarea diseinatu eta eraikiz.

Kutsatzen duenak ordaindu beharko du. Fiskalitate berdea birziklatzen dutenen aldekoa izan behar da. Birziklatzeko ahaleginik egiten ez duten herritar eta enpresek gastu handiagoa eragiten diete udalei eta hondakinen kudeaketarako baliabideak jartzen dituzten bestelako administrazioei. Ez da onargarria, beraz, gehien kutsatzen dutenek, eta ondorioz, gastu handiagoa eragiten dutenek, beste herritarren pareko tasak ordaindu ditzaten.

Gaikako bilketa, zabortegien ixtea, azpiegitura sareak bultzatu eta inerteen biltegien inguruko hausnarketa sozialak ireki, helburuen artean jasoak agertu behar dira.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- *Ekonomia zirkularrerako trantsizioarako ekarpena egitea zero hondakinen politika baten bitartez*

- Sortutako hondakinen errealitate zehatza, eta haiekin udalerrian eta eskualdean egiten den kudeaketa ezagutzea.
- Helmuga argi bat eta zenbait neurri finkatzea ezarritako helburuetara iristeko: birziklatze-tasak gehitzea, erraustegia eta antzeko ereduak baztertzea, eta konpostajea eta antzeko beste eredu batzuk sustatzea, aldi berean guneak eta mekanismoak ahalbidetuz herritarrek eta gizarte-eragileek parte har dezaten.
- Konpostajea hainbat mailatan lehenestea, hiri-hondakinen ia erdia baita, erkidego osoan zein udalerrian edo eskualdean, azpiegitura mekanizatuak ahalbidetuta. Garrantzi berezia du agenda 21 eta antzeko sinergiak aprobetxatzea, hezkuntza-arloan sartzeko. Era berean, programa espezifi-

koak diseinatu ahalko dira hondakin organikoen kantitate handiak sortzeko jarduera berezietarako, hala nola baserriak, haztegiak, eta abar.

- Birziklatzen duen jendea saritzen duten fiskalitate berdeko neurriak aplikatzea, eta horrekin batera, isurketari eta errausketari kanonak aplikatzea, esate baterako.
- Herritarren sentsibilizazioa eta ingurumen-heziketa sustatzea, batez ere eskola-esparruan, kontsumo arduratsuaren eta materialen zikloak ixteko premiaren inguruan.
- Enplegu duina sortzeko aukera sustatzea hondakinen kudeaketan.

Lurralde antolaketa

Diagnostikoa, kokapena

Lurralde-antolamendua gai estrategikoa da. EAEn, Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak (LAG) dira lurralde politika nagusia gidatzen dutenak, gure eredu sozioekonomikoa goitik marraztuz. LAGetan ezartzen baitira etxebizitzak, industriak, azpiegiturak eta natur guneak antolatzeko ideia nagusiak. Gidalerroek zehazten baitituzte, azken finean, giza erabilerak (lo egin, lan egin, batetik bestera mugitu, aisialdiaz disfrutatu, erosi...) espazialki banatzeko irizpideak.

Horregatik, LAGek, bai 1997koek bai berriek, egun pairatzen dugun lurralde-eredu metropolizatu, suburbano eta segregatuaren ardura handia dute. Azpiegitura handiei lehentasuna emanez, Gidalerroek nekazal lurren okupazio sistematikoa erraztu dutelako, baserriar kopuruaren beherakada areagotuz, mugikortasun induzitua sustatuz eta komertzio txikia kaltetuz. “Euskal Hiria” izeneko eta merkatuaren menpeko antolamendu ekonomizistari babesa eman diote, ekosistemen mugak inola ere kontuan hartu gabe.

1997tik LAGek EAEko lurraldea hiru hiriburuetan polarizatuta antolatu dute, gainerako herri eta eskualdeen kalterako, zerbitzu gutxiago eskaini zaizkielako azpiegitura handiak pairatzera behartu arren. Hori dela eta, bizitzaren aurrean kapitala lehenesten duen “Euskal Hiria” eredu agortutzat jotzen da. Sustatzen duen desorekak, etengabeko garapen eta lehiakortasun ekonomiko hutsaren paradigma neoliberalekin areagotuko dena, kolapsora eramango duelako lurraldea.

Helburu orokorra

Aurrerapena eta garapena birdefinitzeko beharra dugu, parametro burujabe eta ekosozialetan, pertsonak, tokiko kultura eta ingurune osasuntsuak lurralde-antolamenduaren erdian jarritz. Ingurumen azterlanei dagokien garrantzia emanez, erabaki politikoak justifikatzeko tresna gisa erabiltzen jarraitu ordez. Lurzoru urbanizaezinaren artifizializazio demasekoa geldituz eta arreta hiri-lurzoruaren berrerabilera zentzudunean jarritz. Lurralde-antolamendua eta hirigintza ohiko begirada laburreko ikuspegi finantzariotik harago aztertuz. Lurzoruaren jabeen neurri egindako plan eta proiektuen aurrean, ongizate kolektibo duina bilatzen duten antolamenduak lehenetsiz. Eta hori guztia, jakina, herritarren parte hartze eta kontrol sozialarekin.

Helburu orokor horiek edukita, lurralde-antolamenduak hiriburuen nagusitasuna berronatu behar du, orain arteko eredu osorik berraztertuz. Lurralde-berronaka horretarako unitaterik egokiena eskualdea da. Bertan gauzatu behar da lurralde-antolamendu birbanatzaile, misto, solidario eta erresilientea.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

- Lurraldearen antolamendu-plan orekatuak, ingurumen-arloan jasangarriak eta pertsonen benetako premiei erantzuten dietenak inplementatzea, eta ez kapitalarenak.
- Guneak eta figurak ahalbidetzea lurralde-politiken koordinaziorako: esperientzien trukea, aholkularitza, sinergiak, eskualde-partzuergoak...
- Lurralde bakoitzaren antolamendu-planak (sektorialak, partzialak eta abar) eguneratzea jasangarriagoak egiteko, tokiko diagnostiko jakinetan oinarrituta, eta mekanismoak eta guneak ahalbidetuta herritarrek eta gizarte-eragileek parte har dezaten.
- Lehen sektorearen errealitatea eta premiak kontuan hartzea, eta nekazaritza-sektorerako laguntza-neurri eta laguntza-lineekin, betiere ingurumenarekin errespetuzkoak badira.
- Bizitegi-plangintzako neurri jasangarri eta proaktiboetan aurrera egitea, hala nola alokairuko etxebizitzaren sustapena eta jabetzako etxebizitza ez diren beste eredu batzuk, hutsik dauden etxebizitzaren kopurua gutxitzea, eta abar.
- Lurraldean erabilera desberdinen sakabanaketa eta segregazioa gelditzea, lurzoru gehiago ez artifizializatzeko eta komunikazio-azpiegitura handien premia gutxitzeko.
- Lurzoruaren prezioaren eta haren ondoriozko higiezin-espekulazioaren kontrol-publikoko neurrietan aurrera egitea.

- Merkataritza txikia babesteko eta sustatzeko lurralde- eta hiri-arloko politikak inplementatzea: azalera handien arautze eta mugatzea, hiri-ardatz komertzial koherenteen sustapena...
- Birgaikuntza eta berrerabilera lehenestea eraikuntza berriarekin alderatuta, hirigintza-erabilera guztietan: bizitegiarako, industriarako, tertziariorako, azpiegiturak...
- Euskal agenda lurralde- eta hirigintza-arloan ere aktibatzea, EAEn, Nafarroaren eta Euskal Elkargoaren arteko lankidetzaren sustatuta, udalerrin euskaldunen lurralde-premiei erantzunez, elikadura-subiranotasuna bultzatuz, turismo-eredu orekatu eta tokian tokikoarekin errespetuzkoa sustatuz...
- Jarduera ekonomikoen lurralde-eredua eguneratzea, Euskal Herri osoaren kohesioa sustatuta, hiriburuetakoko gunen metropolitarretatik harago.
- Eredu turistiko jasangarri, mugatu eta tokiko kultura eta baliabideekiko errespetuzkoa sustatzea, masa-turismo depredatzailearen soilik bideratutako ereduak baztertuz (gurutzontziak...).
- Enpresa logistiko handien ezartze berriak aztertze orduan, haiek kontsumitzen duten lurzoruhektareen eta sortuko dituzten (kalitatezko) lanpostuen arteko ratioa ere baloratu.
- Hiri-eredu trinko, misto, konplexu, kohesionatu eta inklusiboa sustatzea. Herri txikien kasuan, eredu hori eskualde mailan susta liteke.
- Plangintza-fase guztiei buruzko lurraldearen eta hirigintzaren informazioaz gardentasun osoa eskatu eta eskaini, erabakiak hartze prozesuak hobetzeko.
- Oraindik komunalak diren euskal basoen jabe kolektiboa babestea.
- Hiri-ikuspegi orokorrarekin bat ez datorren lurzoru-jabeen neurrirako hirigintza ekiditea.
- Jada existitzen diren bertako zuhaitzetako baso-masak defendatzea eta haien landatzea beste espezieenaren aurrean lehenestea, erresilientzia eta aberastasun ekosistemiko handiagoa erakutsi dutelako.

Energia

Diagnostikoa, kokapena

Euskal Herriak duen menpekotasun energetikoa ia erabatekoa da, %90ekoa baino handiagoa. Herri burujabea izan nahi badugu, energia burujabetzaren norabidean aurrerapausoak egitea ezinbestekoa da. Eredu ekonomikoarekin estuki lotuta dagoen energia eredu atzerakoia dugu, xahuketan eta etengabeko hazkundean oinarritzen dena.

Energia eredu honen kudeaketa egiten duten oligopolio eta multinazionalak beraien interes ekonomikoei begirako kudeaketa eredu inposatu dute azken hamarkadetan, botere politikoa izan duten alderdien laguntzarekin beri ere. Ate birakarien kasuak bereziki sektore gonetan ikusteak badaukala, beraz, azalpen erraza. Argigarria da, era berean, Madrileko agintariek egin duten legedi-aldaketa, gero eta traba handiagoak ipiniaz oligopolioen atzaparretatik alde egin nahi duten herritarrei eta energia berriztagarrii.

Energiak gure sistema sozioekonomikoa mugitzen du. Gaur egungo sistema kapitalista baliabideen (giza-baliabideak, natura, materialak, erregaiak...) xahuketan oinarritzen da baliabide guzti horiek agortu arte. Urtez urte ekoizpenak eta kontsumoak gora egin behar dute sistema honek, kapitalismoak, ondo funtzionatu dezan. Horrekin batera, urtez urte hondamendi naturalak (klima aldaketa barne) eta jendarteko desorekak gora egiten dute. Sistema honen arima da.

EHBilduk sistema burujabe eta jasangarrirako trantsizioa burutu nahi du. Erronka oso handia da eta pausuz pausu baina sendo egin behar da.

Erregai fosilen (merkeen) agorpena heldu denean, Euskal Herrian ere aurreranzko ihesbideari ekin diogu. Arlo honetan gure menpekotasuna erabatekoa da. Ez soilik erabiltzen dugun energiaren % 93ak kanpoan duelako jatorria, erabakiak hemendik kanpo hartzen direlako ere. Baina egoera hori eman da hemengo arduradunek erregai fosiletan oinarritzen den eredu zentralizatua sustatu dutelako.

Paperean trantsizioaren aldeko jarrera idatzi arren datuek agerian uzten digute zein den benetako apustua. Era horretan nahikoa da azken 10 urteko konparaketa bat egitea: EAEn, 2004-2014 urte tar-

tean, energiaren azken kontsumoan % 38,3 izatetik % 41,3 izatera pasatu da, gasa % 25,6 izatetik % 26,6 izatera eta berriztagarriak % 3,6 izatetik % 5,2 izatera. Beraz, ustez berriztagarrietan oinarritzen den eredu batera trantsizio egin behar diren irudia ematen bada ere, instituzio nagusien datuek oso argi uzten dute ez dagoela energia ereduaren benetako trantsiziorik emateko asmorik, iraganeko inertzia bultzatutako aurreranzko ihesbidea baino ez.

Helburu orokorra

Energia kontsumoa %20 murriztu eta energia kontsumo gordinaren %20a berriztagarria izatea. Era berean, energia ondare publikoa eta estrategikoa bezala kudeatzen hasi behar gara. Horretarako, irizpide ekonomiko pribatuen menpean erregai fosiletan oinarritzen den gaur egungo ereduaren eraldatzen hasi behar dugu. Erabakiak, kostuak eta onurak gizarteratuz eta energia berriztagarrietan oinarritzen den eredu banandu berri bat ezarriz.

Energia berriztagarrien aldeko neurriak abian jarri behar dira. Ingurumen ikuspegitik zein bideragarritasun ekonomiko eta sozialetik, energia berriztagarrietan oinarritutako sistema energetikoa eraiki behar dugu, beti ere aipaturiko kontsumoaren murrizketa burutuz.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1. - Askotariko neurriak sustatzea energia-eredu alternatibo eta subirano baterantz joateko

- Fracking tekniken erabilera baztertzea.
- Energia deszentralizatuaren produktiorantz eta energia-subiranotasunerantz aurrera egitea, energia-kooperatiben sorrera eta mantentzea, eta udalerriko eta eskualdeko ekimenak sustatuta, besteak beste.
- I+G+Ba eta arlo horri buruzko Europako ikerketako, garapeneko eta berrikuntza teknologikoko programetan parte hartzeko aukera sustatzea.
- Herritarrei informazio-kanal eskuragarriak ahalbidetzea, eta parte-hartzea eta kontrol soziala sustatzea eta ziurtatzea energia-gaietan.
- Osagai energetikoaren balorazioa egitea aztarna ekologikoan.
- Energia-faktorea (murrizketa, efizientzia eta iturri berriztagarrietatik eratorritakoa) hirigintzan eta lurralde-antolamenduan, dagozkion baldintzak ezarrita.

2.- Energia-kontsumoa murrizteko neurriak indartzea

- Energia-auditoriak egitea industria-enpresei, energia-efizientziako programak ezartzea eta kontsumoa murrizteko I+G+Bko programak diruz laguntzea.
- Energia-kontsumoa murriztea garraioan: klausula sozialak kontratazio publikoan, erosketa eta salmenten sustapena zirkuitu laburretan, oinezko edo bizikleta bidezko eguneroko garraioa errazten duen lurralde-antolamendua...
- Energia-kudeaketa jasangarria egitea foru- eta toki-erakundeetan: eraikin publiko guztien, argite-ria publikoaren eta abarren plangintza energetiko arrazionala.
- Kontsumoa murrizteko teknologia berrien erabilera sustatzea, esparru publikoan zein pribatuarekin lankidetzan.
- Energiaren aurrezpena, energia-efizientiaren lorpena eta energia berriztagarrien erabilera sustatzen duen politika fiskala garatzea, praktika horiek sektore guztietan babestuz.

3.- Energia berriztagarriak sendotzea

- Industria-sektorerako energia garbiko iturri alternatiboen erabilerarako programak sustatzea.
- Foru- eta toki-arloko politika integralak diseinatu eta martxan jartzea garraio publikoaren eta bizikletaren erabilera errazteko.

Azpiegiturak eta mugikortasuna

Diagnostikoa, kokapena

Euskal Herrian ekonomia ekologiko bat izateko ezinbestekoa da mugikortasun eta azpiegitura jasangarriak izatea. Gertutasunaren printzipioaren inguruan ardaztu behar da Euskal Herriko mugikortasun-politika, ingurumenarekiko jasangarria eta sozialki justua izan dadin.

Egungo garraio-sistemaren joerak ez dira jasangarriak. Ondorioz, garraioaren hazkunde jarraituari dituen ingurumen-mugak berrezarri behar zaizkio. Horrek esan nahi du ingurumenak izan behar duela mugikortasunarekin loturako politiken oinarria. Adibidez, garraioaren gehiegizko hazkundeak eta errepideak duen gero eta pisu handiagoak agerian uzten dute egungo eredua, ibilgailu pribatua eta bide-azpiegituren eraikuntza uztartzen dituenak, ez dela jasangarria ingurumenaren ikuspegitik. Horrela, garraioak eragindako BEGen emisioak bikoiztu egin dira 1990tik hona, eta Hego Euskal Herrian guztizko emisioen %30 dira dagoeneko.

Mugikortasun beharra asetzeko azpiegituren eskaintza handitzea ez da teknika bakarra, eskaria eta eskaintza hobeto egokituz edo mugikortasun eskaria sortzen duen presioa gutxituz ere egin daiteke hori.

Azken urteetan nagusitu den etengabeko azpiegiturak eraikitzekekin amaitu beharra dago, inbertsio politika basati honek administrazioak itotzera eraman baikaitu. Benetako irisgarritasunaren eta mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua egin behar dugu.

Helburu orokorra

Egungo ereduaren mugak begi bistakoak dira eta ekonomikoki, sozialki eta ingurumenarekiko jasangarria izango den eredu bat aldarrikatzen dugu: lurralde antolaketa arduratsu baten ondoriozko garraio plan integral iraunkor bat diseinatu behar dugu, garraio publikoari lehentasun osoa emanez, egun ditugun azpiegiturak balioan jarriz eta erabilera areagotzeko neurriak hartuz.

Aldarrikatzen dugun eredu iraunkor berri honen diseinu eta plangintzan, guztion inplikazioa behar-beharrezkoa da, herritar zein eragileen parte hartze zabalak emango baitio zilegitasuna planteamendu orori.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- Garraio-eredu jasangarri bat bultzatzen jarraitzea, lurralde-antolamendu arduratsu batean eta garraio publikoaren erabileran oinarritutakoa

- Garraioaren Lurralde Agintaritzaren sorrera (edo hobekuntza) bultzatzea, dagokion lekuan, gizarte-eragile guztien parte-hartzera irekitako gunea izan dadila erraztuz eta operadore guztien arteko koordinazioa bermatuz.
- Errepideen sektore-planak egokitzea beharrezkoa den lekuetan; plangintza partizipatibo berriak bultzatzea, pertsonen bizi-kalitatearen hobekuntzan zuzenean joko duten inbertsioak bermatuz, gizarte-premiei erantzunez.
- Garraio pribatu eta indibidualarekiko garraio publiko eta alternatiboko forma berrien mesederako udalerriko/eskualdeko mugikortasun-planak egitea, eta erregai fosilen erabilera gutxitzen saiatzea.
- Hiriarteko autobus zerbitzua hobetzea herritarren prozesu partizipatibo bidez, lurraldea egituratu eta kohesionatzeko jasangarritasunaren ikuspuntutik begiratuta.
- Bidegorrien sareak zabaltzea eta bizikletaren erabilera sustatzea lurralde osoan: eskolara, eskola-kiroleko jardueretara, lanera, eta abar, bizikletan joateko programak.
- Tarifa-integratioko prozesua eta lurralde guztietarako garraio-txartel bakarra lortzeko prozesua amaitzeko ahalegintzea.
- Garraio publikorako tarifa sozialak errenten arabera ezartzeko aukera bultzatzea, eta bereziki prekarioak diren kolektiboak kontuan izanda.

- Azterlanak egitea eta neurriak definitzea ibilgailu pribatuaren murrizketa errazteko: aparkagune publikoak ezartzea, hiriarteko autobusen eta hiribusen zerbitzuak hobetzea, oinezko eta oztoporik gabeko mugikortasuna sustatzeko neurriak identifikatzea. Eta abar.
- Tren-zerbitzua hobetzeko eta lurralde osoaren premietara egokitzeko ahalegina egitea.
- Eragile politiko eta sozialen artean errepideen finantzaketari buruzko debatea eta akordioa sustatzea, eredu justu eta orekatuago bat lortzeko.
- AHTarekiko gure alternatiba defendatzen jarraitzea.
- Salgaien garraioa tren-garraiorantz aldatzen ahalegintzea.



ehbildu